# ISTRIPUETARAKO PROTOKOLOA ESKOLA ORDUETAN EDO IN ITINERE

**<u>ISTRIPU BIOLOGIKOA</u>** Istripuaren berri eman **berehala** instruktoreari eta irakasle tutoreari, eta:

| **Donostialdea ESIko Practicumeko ikasleak** |
|---|
| **Donostia Ospitale**koak hona joango dira: Lan Osasuna, Ospitaleko Ama-Umeentzako Eraikina, 1. berdea. |
| **Lehen Mailako Arretako Zentroak:** Lehen asistentzia (Analitika iturriari eta ikasleari) praktikak egiten ari den osasun zentroan eta Prebentzioko Oinarrizko Atalari (Donostialdea ESIko Lan Osasuna) jakinaraziko dio. *(Zentroko instruktoreak edo arduradunak sinatutako barruko jakinarazpen agiria)* |

| **Debagoiena ESIko Practicumeko ikasleak** |
|---|
| Debagoienako Ospitalekoak eta Debagoiena ESIko lehen mailako arretako zentroetakoak, hona |
| Debagoiena ESIko Lan Osasuna<br>*Arratsaldeko eta gaueko txandetan erizaintzako guardiako ikuskatzailearekin jarriko dira harremanetan* |

| **Debabarrena ESIko Practicumeko ikasleak** |
|---|
| Mendaroko Ospitalekoak eta Debabarrena ESIko lehen mailako arretako zentroetakoak, hona joango dira: |
| Prebentzioko Oinarrizko Atala. Mendaroko Ospitaleko behe solairua (ekitaldi areto ondoan). Tel: 943-032800<br>*Ez dagoenean*<br>Mendaroko Ospitaleko Larrialdi Zerbitzua |

| **Bidasoa ESIko Practicumeko ikasleak** |
|---|
| **Bidasoako Ospitalekoak** hona joango dira: Prebentzioko Oinarrizko Atalera, eta ez dagoenean, Bidasoako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura |
| **Lehen Mailako Arretako Zentroak**: Ikasleari lehenengo laguntza eman eta analitika egin (iturria) gertaeraren unean eta tokian bertan, betiere ezarritako protokoloari jarraituta. Horren ondoren, Bidasoa ESIko Prebentzioko Oinarrizko Atalari jainarazi (*ez dagonenean*, Bidasoako Ospitalera joan) Kontrolak [illegible] |

| **Goierri-Urola Garaia ESIko Practicumeko ikasleak** |
|---|
| Zumarragako Ospitalekoak eta Goierri-Urola Garaia ESIko lehen mailako arretako zerbitzuetakoak, hona joango dira: |
| Prebentzioko Oinarrizko Atalera, *ez* dagoenean, Zumarragako Ospitaleko Larrialdi Zerbitzura |

| **Tolosaldea ESIko Practicumeko ikasleak** |
|---|
| **Asunción Klinika:** kontrolak Asunción Klinikan egin, gorabeheraren berri eman Donostialdea ESIko Prebentzioko Oinarrizko Atalari jarraipena egiteko |
| **Lehen Mailako Arretako Zentroak:** kontrolak praktikak egiten ari diren osasun zentroan egin, gorabeheraren berri eman Donostialdea ESIko Prebentzioko Oinarrizko Atalari jarraipena egiteko. |

**Beste osasun zentro batzuetako ikasleak** harremanetan jarriko dira UPV/EHUko idazkaritzarekin (***943017310***), eta, ondoren, Osakidetzako Prebentzio Zerbitzu Korporatiboarekin (***945006027*).** Bertatik emango zaizkio jarraibideak ikasleari. *Batean zein bestean inor ez dagoenean, hurbilen dagoen Osakidetzako Larrialdi Zerbitzura joan ahalko dira.*

<u>Istripu biologikoa denean</u>, informazio hau eman beharko da: **Ziztadaren iturri izan den erabiltzailea:** izen-abizenak, historia zkia-IKK.

**<u>GAINERAKO ISTRIPUETAN</u>** (eta istripu biologikoaren kasuan ere bai) Fakultateko idazkaritzara jo istripu agiria izapidetzeko. (**Tel.: 943 017310**)